

BELAUNALDIEN ARTEKO ERLAZIOAK


Legazpiko gazte eta adineko pertsonen
artean “Belaunaldien arteko
Elkarrizketa” bultzatzeko proiektua

EDUKIA

1. SARRERA
2. BELAUNALDIEN ARTEKO ERLAZIOAK, ZER DIRA?
3. HELBURUAK
4. JARDUERAK
5. INFORMAZIOA ETA KONTAKTUA

1. SARRERA

Europar Batasuneko Hezkuntza eta Kulturako DGako “Juventud en Acción” programak babestuta, **BUZTINTEGI**, **NAGUSILAN** eta **SORGINTXULO**k elkarlanean martxan jarri duten proiektua da.



2010eko uztaila: proiektuaren azken ikutuak

2. BELAUNALDIEN ARTEKO ERLAZIOAK, ZER DIRA?

«Belaunaldi esberdinetako pertsonen arteko elkarlana, erlazioak eta elkartrukea areagotzen dituzten jarduera edota programak dira. Gazte eta adineko pertsonen artean trebakuntza, ezagutza eta esperientziak **partekatzean** datza» (Ventura-Merkel y Lidoff, 1983)

«Bai Gazte eta bai adineko pertsonentzat onurak izango dituzten esperientziak **elkartrukatzea** da. [...] Inongo lotura biologikorik ez duten gazte eta adineko pertsonen artean **lotura afektibo eta kultur hartu-emanak sustatzeko** diseinatuak daude, era berean belaunaldi desberdinen euskarri bihurtuz, eta segurtasuna bermatuz» (Newman, 1997).

4. HELBURUAK

Helburua Legazpiko gazte eta adineko pertsonen arteko komunikazioa areagotu eta ezagutza, esperientziak eta baloreak elkartrukatzea da. Aldi berean **kohesio soziala** sustatzen da, **adin guztientzako gizartea** sortuz. Proiektu honek zera erraztuko du:


- **Parte-hartzea eta elkar komunikazioa** sustatzen dituzten guneak sortzea.
- **Belaunaldien arteko zuloa gutxitzea** gazte eta adineko pertsonen artean.
- **Partekatuak diren interes, behar eta helburuetan oinarritutako erlazioak** eraikitzea.
- Talde desberdinen arteko **elkarbizitza** sustatzea.
- Gazte eta adineko pertsonen **kreatibitatea eta entzutea indartzea.**

5. JARDUERAK

Adineko pertsonak, *plantxan* aritzeko, *josteko, arropa eskegitzeko eta sukaldean* aritzeko duten ezagutza eta esperientzia transferitzea gazteei.

Gazteek, *informazio eta komunikazio teknologia berriei* buruz duten ezagutza eta esperientzia transferitzea adineko pertsonari, hala nola mugikorra erabiltzea, internet, etabar.

6. INFORMAZIOA ETA HARREMANETARAKO



Olatz Orozco

olatzorozco@hotmail.com

Maitane Murillo

mai_murillo87@hotmail.com



Glori Martínez de Guereñu

mggerenu@euskalnet.net



Marijose Cantero

marijosecantero@yahoo.es

<http://intergeneracional-sorgintxulo.blogspot.com>